



Azpeitiko Udala

ARREGI PLAZA, 1 ZENBAKIAN ERAIKUNTZAN "TELEFONIKA" DAGOEN UDALAREN-LOKALAREN ERABILERA ATZEGI ELKARTEARI UZTEA (2023OROK0538).

Azpeitian, 2023ko uztailaren 6an.

Alde batetik, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, AZPEITIKO Udaleko alkate-udalburua, Toki Araubideari buruzko legeriak emandako eskumenak erabiliz, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan oinarrituta.

Bestetik, **MITXEL LAKUNZA ZUMETA**, ATZEGI ELKARTEAREN zuzendaria Gipuzkoan, bere estatutuek emandako eskumenak erabiliz.

ATZEGI ELKARTEA Gobernantza publiko eta autogobernu sailari atxikitako Euskal Autonomia, Erkideko Elkartearen erregistro orokorra Elkartearen Erregistro Nazionalen 1966ko otsailaren 11n emandako Ebazpenaren ondorioz, AS.R.P.G. 00188erregistro zenbakiarekin.

Elkartearen helbidea Gipuzkoan honako hau da: Okendo Kalea 6 20004 Donostia - administracion@atzegi.eus.

ADIERAZTEN DUTE

I. Azpeitiko Udala Perez Arregi Plaza, 1 zenbakian dagoen eraikinaren jabea da. Eraikin hau "Telefonika" bezala ezaguna da. Azpeitiko Erregistroko 12 zenbakiko finka da, 524,24 m²-koa. Hitzarmen honen ondorioetarako, 130,36 m² inguruko azalera hartuko da kontuan.

Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorren arabera, eraikin hori "Alde Zaharra" 1. Hirigintza-eremuko hiri-lurzorua barruan dago eta Alde Zahararen bizitegitarako kalifikazioa dauka. Plangintza Orokorren hirigintza araudiari jarraituz, eraikin honek, dagozkion ondorioetarako, titulartasun eta erabilera publikoko eraikin batek duen berezko izaera dauka.

Gaur egun, eraikin hau Udalaren Ondasun Higiezinaren Inbentarioan, 1.1.00065 zenbakiarekin dago inskribatua, ondasun patrimonial gisa.

2.- Azpeitiko Udalak eta Atzegi Elkarteak euren betebeharren artean daukate herritarrentzako kalitatezko zerbitzuak eskaintzea. Hain zuzen, indarrean den legeriaren baitan Udalak hainbat gizarte zerbitzu eskaintzen ditu bere herritarrentzat, eta lan honetan Atzegi Elkartearen urte askotako laguntza izan du.

1960. urtean sortu eta 1967tik onura publikoaren deklarazioa duen urritasuna duten pertsonen senideen elkarte honen helburua adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzea da. Elkarte-mugimendu honek familiei laguntza eta aholkularitza eskaintzen die, eta horretarako hainbat jarduera bideratzen ditu. Horien artean daude: aisialdiko programak bultzatzeko boluntarioritza sustatu, herritarren sentsibilizazio kanpainak, ikastetxeetan hitzaldiak

eskaini, integrazioa txikitatik landuz, herriko hainbat ekintzetan parte hartu, adimen urritasuna duten pertsonen familiei hitzaldiak eta formazioa eman.

Gipuzkoan 63 urtez ari da lanean Elkarte hau. Gaur egun 2.090 bazkide ditu, eta Elkartearekin lan egiten duten 980 bolondresak parte hartzen dute bertan. Lurralde osoan egoitzak ditu, eta Azpeitiko herrian, orain arte bezala, egoitza bat izatea proposatu du.

Elkarte hau urteetan aritu da lanean Azpeitiko herrian eta orain Telefonika bezala ezaguna den eraikinaren zati bat erabiltzeko proposamena egin du (orain arte Elkarte hau Perdillegi eremuko udal-lokalean ari zen, baina eremu horretan hirigintza-antolaketaren aldaketa bat tramiatzen ari da).

Bi aldeek elkarren arteko lankidetzaren esparru honekin jarraitzeko interesa dute. Udalak Atzegi Elkartearen lankidetzari esker, lortzen du eraginkortasunez kudeatzea gizarte zerbitzuak esparruan herritarrek dituzten beharrak. Gizarte Zerbitzuak sailak Elkartearekin lankidetzaren estuan lan egiteko aukera izango du, eta herritarrek Elkarteak eskaintzen dituen jarduerak horietan parte hartzea izango dute. Bere aldetik, Atzegi Elkarteak ziurtatzen du Azpeitiko eta bailarako herritar eta familiek Elkartearen babesa eta laguntza izan dezatela.

*Egitasmoaren edukia hitzarmenari eranskin moduan atxekiko zaio.

III. Egitasmo hori bat dator Udalak autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasunak eragindako beharrezko pertsonalak eta familiakoak prebenitzeko eta horiei erantzuteko indarrean duen programarekin.



IV. Toki Araubidean indarren dauden xedapen legalen testu bateratua onartzen duen 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 79. artikuluari jarraiki ondasun higiezinak, soilik laga ahal izango dira entitate edo erakunde publiko edo irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei, beti ere, udalerriko biztanleriaren onurarako izango diren helburuak betetzeko. Zentzu berdinean, Toki Entitateko Ondasunen Erregelamenduak (1372/1986 Errege Dekretuko 109.2 artikulua).

Azaldutakoaren arabera, eta jakitun izanik lagapenak onura ekarriko diela udalerri honetako herritarrei, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen dute, ondorengo klausula hauen arabera:

HITZARTUTAKOAK

LEHENENGOA.- Helburua

Hitzarmen honen helburua da "Telefonika" izenarekin ezaguna den Perez Arregi Plaza, 1 zenbakian dagoen eraikuntzaren beheko solaria lagatzea, bertan dauden altzari eta tresnekin batera (2. eranskin moduan jaso da altzari eta tresnen inbentarioa bi aldeak sinatuta)

Elkarteak lokala eguneko (astelehenetik igandera) 24 orduz erabili ahal izango du.



Azpeitiko Udala

Erabilera-lagapena doakoa izango da, eta ezin da inola ere ulertu eskubide hori inongo alderdiren aldeko eskubide ekonomiko edo errentagarria denik. Lagapena Elkartek aurkeztu duen egitasmoari lotuko zaio.

Helburu hori interes sozialekoa da, eta udalerri honetako herritarren onerako da.

BIGARRENA.- Udalaren betebeharrak.

1.- Udalak behin-behineko izaerarekin lagatzen dio Elkarteari zehaztu den lokalaren erabilera, BI urterako, beste BI urte luzatzeko aukerarekin.

2.- Udalak ez du zuzentzen edo onartzen lagatako lokalean egin beharreko jardura. Elkartek ez du inolako mendekotasun-harremanik Udalarekin. Hala ere, Gizarte Zerbitzuak sailak Elkartearekin lankidetzan estuan lan egitea izango du adimen urritasuna lotuta dagoen egoera bat bizi eta laguntza behar badu aurretik zehaztu den programaren barruan.

Edozein kasutan, Azpeitiko Udalak lokalaren funtzionamendua zaindu eta kontrolatzeko eskubidea izango du (barruko ordena, zer ordutan ireki eta ixten den, lokal eta zerbitzuen garbitasun eta baldintza sanitarioak) eta behar den informazio eta dokumentazioa eska liezaioke Atzegi Elkarteari jardura horrek sortzen dituen eginbehar guztiak betetzen direla egiaztatzeko. Hori dela eta, Udalak lagatako leku eta instalazio guztietara sartzeko eskumena izango du.

Bi erakundeak beharrezkoa izango dute datuen babesa arautzen duen legeriaren baitan hitzarmena sinatzea, eta edozein kasutan herritarrari beharrezkoa den baimena eskatu zaio, bere datuak partekatu behar badira (hitzarmen hori jardura hasi eta gehienez, hilabete epean sinatuko da).

3.- Konponketak eta berrikuntzak, lokalaren egiturazko mantentze-lanak egiteko, Udalari dagozkio; halakotzat hartuko dira eraikinaren egiturari, fatxadei, teilatuei eta kanpoko zerbitzu-hartuneei eragiten dietenak, betiere lokalaren erabilera normal eta arruntaren ondorioz badira.

4.- Udalaren kontura izango dira lokalaren erabilerak sortzen dituen gastu guztiak. Bereziki, elektrizitate, ur, gas, berokuntza, garbiketa eta telefono horniduren ordainketaren ardura hartuko du.

HIRUGARRENA.- ATZEGI Elkartearen betebeharrak.

1.- ATZEGI Elkartek lokala gehienez ere giltzak hartzen dituen momentutik BI HILABETEKO epean okupatu beharko du, eta funtzionamenduan mantendu beharko du gainerako epean, harik eta BI urteko lagapen-epea edo, hala badagokio, luzatutako beste BI urteko epea amaitu arte.

2.- ATZEGI Elkartek arduraz zaindu beharko ditu erabilera eskusiboko eta erabilera komuneko espazioak eta, oro har, higiezin osoarenak, baita altzariak ere, eta kide edota erabiltzaileek egin ditzaketen kalteen erantzule izango da.

3.- ATZEGI Elkartek lagatako jardura baino ezin izango du egin.

4.- Elkarreak Azpeitiko egoitzan bideratuko duen programaren egoerari eta garapenari buruzko txosten-memoria aurkeztu beharko da urtean behin Gizarte Zerbitzuen Sailean, lortutako emaitzak baloratuta.

5.- Hitzarmena sinatu eta lokalaren okupazioa egin aurretik Elkarreak bere jarduerari dagokion aseguru-poliza egin eta Udalari jakinaraziko diote.

LAUGARRENA.-Hitzarmenaren amaiera

Hitzarmena iraungi egingo da lehen klausulan aurreikusitako epea amaitzen bada, alderdietako edozeinek bere gain hartutako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, gutxienez hilabete lehenago idatziz salatu ondoren, edo aldeetako edozeinek hitzarmena betetzea eragozten duten arrazoiak daudela erabakitzen badu.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren Izaera.

Erabilera lagatzeko hitzarmen hau administratiboa da, eta daukan lege izaerari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 9. artikuluan oinarritzen da (SPKL 2017); beraz, ez da zuzenean aplikatuko, nahiz eta lege horren printzipioak aplikatuko diren hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko (2017ko SPKLren 4. art.).

Ondorioz, hitzarmen honen indarraldian sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ebatziko ditu.

Eta hitzarmen honen edukia berretsiz, goiburuan adierazitako tokian eta egunean sinatzen dute.

 NAGORE ALKORTA ELORZA Azpeitiko Udala AZPEITIKO Udaleko alkate-udalburua,	 MITXEL LAKUNZA ZUMETA ATZEGI ELKARTEAREN zuzendaria
---	---



Azpeitiko Udala

II ANEXO A

ATZEGI elkarteak ekainiko dituen zerbitzuak

1. Adimen urritasuna duten pertsonen aisialdiko programak bultzatzeko boluntariotza sustatu, edozein pertsona, edozein adinetan boluntario lana egiteko prestatuz eta motibatuz.
2. Eskualdeko familien bizi kalitate hobetzen jarraitu ahal izateko, besteak beste honako ekintzak:
 - 2-1 Herriarren sentsibilizazio kanpainak.
 - 2-2 Ikastetxeetan hitzaldiak eskaini, integrazioa txikitatik landuz.
 - 2-3 Atzegik egin izan dituen lanen erakusketak egin herriak ikusi dezan.
 - 2-4 Herriko hainbat ekintzetan parte hartu, esatera, azoka herritik...
3. Adimen urritasuna duten pertsonen familiei hitzaldiak eta formazioa. Familiek momentu askotan sentitzen duten bakardadeari laguntza eskaini. Adimen urritasuna duten pertsonen bizi etapa desberdinetan bere inguruko senideek behar desberdinetan aurkitzen dira. (Ikasketa zikloak, nerabezaroa, sexualitatea, bakardadea, zahartzaroa, anai-arreben lotura...)
4. Aisialdiko eta parte zerbitzuak
 - 4-1 TXOLARTE, taldea 16-62 urte bitarteko pertsonak parte hartzen dute boluntarioei esker planak egitea.
 - 4-2 Beste eskualdeko txolarteko harremanak sustatu.
 - 4-3 Gizarte parte hartzeko ikasketa ekintzak, Ahal den neurrian herriko zerbitzuak erabiliz.
5. Jendea gertura dadin erreferentziako lekua

